



2008ko GEHITU ZILAR SARIA

Gehituk (Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteak), 2006. urtean Onura Publikoko elkarteak, Jaurlaritzak izendatuak eta 2004an *Hiritar Merezimenduaren Domina* Donostiako Udalak emanak aho batez erabaki du 2008ko Gehitu Zilar Saria ematea

JESUS VAZQUEZI.

Sexu orientazioaren ikusgaitasuna funtsezko urratsa izan da gay, lesbiana, transexual eta bisexualok azken urteotan aurrera egin dezagun, eta horretan, Jesús Vazquez erreferente bilakatu da.

“Arny Afera” zela-eta, poliziaren eta komunikabideen jazarpen eskandalagarria izan ondoren, 1996. urtean gertaturikoa, Jesús Vazquezek jakin zuen bere egoera pertsonala osatu eta, hartara, ikusgaitasun homosexualen eredu izan zen milaka pertsonarentzat.

Bere homosexualitatea agerikoa egiteak, kementsu eta era normalizatu batez milioika ikusleren aurrean adierazteak, “beldurra galtzen duzunean libre sentitzen zara” baieztatzeak milaka pertsonarentzat, inongo zalantzarik gabe, homosexualitatearen erreferentea positiboa bilakatu du, aurreiritziak uxatzen, trabak eta eragozpenak baztertzen lagundu duena.

Bere ikusgaitasuna hain da argia, ezen hainbat eskolatan egindako homosexualitateari buruzko txostenak dio gazte eta nerabeen artean Jesús Vazquez dela erreferente homosexual ezagunena eta aitortuena.

Bestalde, garrantzi handiko proiektu eta kanpainetan berak izan duen parte-hartzea aitortu nahi diogu: Amnistia Internazionalak antolaturiko homofobiaren aurkako kanpaina; “gure artean” kanpaina, gizonezkoekin sexu-jarduera duten

gizonentzako sexu ziurra bultzatzea helburu duena; giza eskubideen eta hiesaren prebentzioaren aldeko ekitaldietarako bere irudi publikoa uzteak agerian uzten du berdintasunarekiko eta duintasunarekiko bere konpromisoa, baita pertsona guztien giza eskubideekiko errespetua ere. Egun ACNUR-en (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen goi-komisario) enbaxadorea da.

Horrengatik guztiagatik, bere ikusgaitasunagatik, homosexualok ez diskriminatzearen alde egiteagatik eta hiesaren aurkako borrokan hartu duen inplikazioagatik ematen dio Gehituk saria eta egin duen lana aitortzen dio